

2017/00001259 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateordeak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hamazazpiko abuztuaren hamazortzian.

Udal Tokiko Gobernu batzarrak, 2017ko ekainaren 19an hartutako erabakiaren arabera, Hernaniko zerbitzu publikoetako arduradun lanpostua bitarteko izaeraz betetzeko, prozedura ireki bidez eratuko den lan-poltsaren hautaketa prozesuaren oinarriak eta deialdia onartu zuen.

Aurreko guztia kontuan harturik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenen egikaritzan, honako hau

ERABAKI DUT:

Zerbitzu publikoetako arduradun lanpostua bitarteko izaeraz betetzeko, prozedura ireki bidez eratuko den lan-poltsaren hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea osatzea:

Epaimahaiburua: Hernaniko Udalaren Idazkariordea: Miren Arantza Arrazola Iturbe.

Kideak: Pasaiako Udaleko karrerako funtzionarioa: Joana Larrea Auzokoa.
Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioa: Felipe Alvarez Rodriguez.
Eibarko Udaleko karrerako funtzionarioa: Sabas Bedialauneta Arrizabalaga.

Idazkaria: Hernaniko Pertsonal saileko administraria: Maite Garcia Arantzeta.

Koro Etxeberria Tolosa alkateordeak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berriazko egintza horren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu(e)la **Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabete**ko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertze**ko **errekurtsoa** aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berriazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita **hilabete**ko epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta norberaren eskubideak babesteko egoki irizitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Hernanin, 2017ko abuztuaren 18an
IDAZKARIORDEA